

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Fase honetan gure proiektuan parte hartuko duten bezeroak zehaztu eta sailkatuko ditugu, azkenean bezeroak baitira guk sortutako proiektua bultzatzen dutenak.

Gure ideia errepide eta zebrabideak dituen hiri edota herrietan bizi diren biztanleentzako dago pentsatuta, haiek erabil dezaten. Baina gure bezeroak ez dira hiritarrak berak, udaletxeak (Autonomia Erkidegoak, estatuak eta abar ere bai) baizik, beraiek baitira gure proposamena erosi eta haien hiri edo herrietan instalatuko dituztenak. Garrantzitsua da, leku horiek finantza ahalmen esanguratsua izatea, hau da, lehen mailako edota garapen bidean dauden herrialdeak izatea.

Honekin argi utziko dugu enpresak merkaturan zein segmentu eta nola zuzenduko den. Gure enpresak negoziazio-eredu argia eduki behar du, bezeroen beharrak hobe ezagutzeko.

